



LEGORRETA KO UDALA
(GIPUZKOA)

IDENTIFIKATZEN DIRA:

Alde batetik, **ZELAI AMENABARRO GOIKOETXEA** andrea, Legorretako udaleko alkate udalburua.

Bestetik **ARKAITZ MUGERZA AGIRREZABALA** jauna 72.534.122-R NAN zenbakiduna, **AITOR ZUNZUNEGI TAPIA** jauna 72.539.651-C zenbakiduna eta **IÑIGO IPARRAGIRRE URRETABIZKAIA** jauna NAN 72.497.062-G zenbakiduna, euren izenean eta ordezkartzan

ADIERAZTEN DUTE

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. 1. artikulua xedatutakoaren arabera, udal eskumen propioa da «8) Ingurumenaren eta garapen jasangarriaren antolamendu osagarria, sustapena, kudeaketa, defentsa eta babesa, hiriguneetako kutsadura akustikoaren, argi-kutsaduraren eta kutsadura atmosferikoaren aurkako babesa barne».

Udazken honetan 15 urte beteko dira Euskal Autonomia Erkidegoan Abiadura Handiko Trenaren lehen harria, euskal Y izenez ezagutzen dena, jarri zenetik. AHTaren eraikuntza zalantzan jarri zen hainbat ikuspuntutik: trenbide-azpiegitura horren ingurumen-eraginak aipatu ziren, etorkizuneko errentagarritasunari eta bideragarritasunari buruzko zalantzak sortu ziren hasieratik.

Legorretako udalerrian eragin handia izan eta izango du proiektu honek. Izan ere, Legorretako zatiak dituen 3,5 kilometroko luzeratik, 2,9 tuneletik doaz, eta gainerakoak Zubina eta Lasarte erreken gaineko bi zubien gainean, 144 eta 382 metroko luzerakoak, hurrenez hurren.

Sinpatia alderdikoi edo politikoaz haratago, ezjakintasun-maila eta ongi argudiatutako eta planteatutako eztabaida publikorik eza nabarmena izan da Espainiako eta euskal abiadura handiaren kontzepzio eta inpaktuari buruz. Ez zaio erantzun arrazionalik eman aurrez objektiboki definitutako arazo publiko bati; aitzitik, alderdi interesdun edo «stakeholder» jakin batzuek baldintzatutako politika publiko bat sortu da. Baliabideak biziki eskatzen dituen garraio-politika publikoa da, eta izugarri baldintzatzen du herrialde-eredua, lurraldearen egitura eta herritarrek etorkizunean izan ditzaketen mugikortasun-aukerak; bestalde, ikus dezakegu herritarrek ez dutela horri buruzko informaziorik jaso.

Arkaitz Mugerza Agirrezabala, Aitor Zunzunegi Tapia eta Iñigo Iparragirre Urretabizkaia legorretarrek proiektu bat aurkeztu dute: proiektu horrek bi zati ditu: lehenik dokumentazio eta ikerketa baten bidez AHTaren errealitatea eta paisaiekin eduki duen, gaur egun daukan eta izango duen erlazioa azaldu nahi da; bigarren zatia ikerketaren dibulgazioa izango da. Horretarako, bizikletaz trenak egingo lukeen ibilbide bera burutuko dute, bertan, trenez eta bizikletaz eginez egongo litzatekeen ezberdintasuna metafora gisa erabiliz, dokumental bat sortuko dute.

Legorretako Udalaren ustez, interes publikokoa da proiektuaren ingurumen-errealitatea ezagutaraztea; hori dela-eta, alkate udalburuak, 2021eko ekainaren 16an sinatutako 158/2021

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: <https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/52/AAAAAVXD4.Gvro>

Espediente kodea: 2021IDIR0007
Titularra: Aitor Zunzunegi Tapia
Espediente mota: Dirulaguntza hainb

Dekretu bidez, ebatzi du Legorretako Udaleko Diru laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, horren I.eranskinean, honako lerro hau sartzeko:

Ingurumen arloa	Área de Medioambiente
11/2021	11/2021
<ol style="list-style-type: none">1. Organo emailea: Legorretako Udala (Ingurumen arloa)2. Zenbatekoa: 1.7223. Finantza iturria: Udala4. Kontu izendapena: 1.481.01.172.005. Kudeaketa mota. Izenduna6. Araudia: Hitzarmena7. Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak:<ul style="list-style-type: none">- Udalerrian eragina eta eragina duten ingurumen-azterketak egin daitezten sustatzea- Ingurumenaren dibulgazioa sustatzea.8. Onuraduna. Arkaitz Mugerza, Aitor Zunzunegi eta Iñigo Iparragirre.9. Epea: 2021.	<ol style="list-style-type: none">1. Concedente: Ayuntamiento de Legorreta (área de medioambiente)2. Importe: 1.7223. Fuente de financiación: Municipal4. Aplicación presupuestaria: 1.481.01.172.005. Modalidad de gestión. Nominativa.6. Normativa: Convenio.7. Los objetivos y efectos que se pretenden alcanzar:<ul style="list-style-type: none">-Fomentar la realización de estudios medioambientales con incidencia e impacto en el municipio-Fomentar la divulgación medioambiental.8. Beneficiario/a: Arkaitz Mugerza, Aitor Zunzunegi e Iñigo Iparragirre9. Plazo: 2021

Hori dela eta, bi aldeek ituntzen dituzte honako:

KLAUSULA HAUEK

Lehenengoa.- Hitzarmen honen xedea da Legorretako Udalak Arkaitz Mugerza Agirrezabala, Aitor Zunzunegi Tapia eta Iñigo Iparragirre Urretabizkaiaren alde 2021erako udal-aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izenduna ematearen ondoriozko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, abiadura handiko trenaren proiektuak duen ingurumen-inpaktua, Legorretan bereziki, aztertu, ikertu eta zabaltzeko ekintzak garatzeko.

Hitzarmen honen xede den ikerketa- eta dibulgazio-lanak honako jarduera hauek barne hartzen ditu:

AHTak Euskal Herriko mendietan eta Legorretan duen eragina aztertu

Elkarrizketak eta topaketak egin

Dokumentala euskaraz egin

Dokumentala Legorretako Herri Antzokian 2021erako udazkenean edo neguan estreinatzea

Dokumentala hedatzea eta zabaltzea

Bigarrena. Horretarako, Legorretako Udalak MILA ETA ZAZPI EHUN ETA HOGEITA BI (1.722,00) euro gorde du 1.481.01.172.00 kontu izendapenean.

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/52/AAAAVXD4.Gvro>

KALE NAGUSIA, 12 – 20250 LEGORRETA (GIPUZKOA) TEL. (943)-08 40 00- FAX (943)-08 49 00- E-maila:
udala@legorreta.eus

Espediente kodea: 2021IDIR0007
Titularra: Aitor Zunzunegi Tapia
Espediente mota: Dirulaguntza hainb

Hirugarrena. Interesdunek egiaztatu dute zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzen dituztela eta azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorraren 11. artikuluan onuradun izateko ezarritako gainerako baldintzak ere.

Legorretako Udalak egingo dituen egiaztapenak onartzea, bai abenduaren 19ko 21/2003 Foru arauak, Gipuzkoako Toki erakundeetako Aurrekontuei buruzkoak, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiko legerian ezartzen diren finantza kontrolak ere, diruz lagundutako jarduerak aurrera eramanez eta gauzatzeari buruz eskatzen dioten informazio osagarri guztia emanez.

Legorretako Udala jakinaren gainean jarriko dutela beste herri administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu bereko beste diru laguntzaren bat ematen badie, edo diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatzen bada.

Legorretako Udalaren lankidetzak agertzea diruz lagundutako jarduerari buruz informazioa eman, publikitatea edo propaganda egiteko unean.

Laugarrena.- Legorretako Udalak diru laguntza ordainduko du:

2021eko ekainaren 16an: 1.722 euro

KUTXABANK entitateko K/K: IBAN ES19 2095 5073 00 9120810155

Bosgarrena. Onuradunek 2021eko abenduaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dute:

- Laguntza emateko baldintzak bete direla azaltzen duen jardueraren memoria: zer jarduerak egin diren eta zer emaitza lortu diren zehaztuta.

- Egindako jardueraren kostua zurrizteko memoria ekonomikoa, honako hauek bilduko dituenak:

a) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazita.

b) Fakturak edo trafikoko juridiko merkantilean pareko frogak balio duten edo eraginkortasun administratiboa duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutakoak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duen dokumentua.

c) Diruz lagundutako jarduketako finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda zehatua: zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Diru laguntza zurrizteko xedatutako epean ez bada aipatutako ereduak eta dokumentazioa aurkezten, 15 eguneko epean aurreko dezaten eskatuko zaie onuradunei. Epe berriaren barruan egiaztapenak ez aurkezteak zortzigarren klausulan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.

Onuradunek lau urteko epean gorde behar dute diruz lagundutako jarduerak egin dela eta jasotako funtsak erabili direla egiaztatzen duten agiriak. Erakunde onuradunak egiaztatzeak aurkezteko duen epea amaitzen denean hasiko da lau urteko beste epe hori.

Eskatutako dokumentazioa aurkezten denean, organo emaileak dagozkion egiaztapenak egingo ditu. Ondorioztatzen bada diruz lagundutako kostua onartutako diru laguntza baino txikiagoa dela, edo diru laguntza zurrizteko baldintzak ez direla osorik edo neurri batean bete, edo ez direla diru laguntzaren helburuak bete, onuradun erakundeari gorabehera horren berri emango zaio egindako egiaztapenaren emaitzekin batera eta seigarren klausulan aurreikusita dagoen bezala jokatu da.

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/52/AAAAAVXD4.Gvro>

KALE NAGUSIA, 12 – 20250 LEGORRETA (GIPUZKOA) TEL. (943)-08 40 00- FAX (943)-08 49 00- E-maila:
udala@legorreta.eus

Espediente kodea: 2021IDIR0007
Titularra: Aitor Zunzunegi Tapia
Espediente mota: Dirulaguntza hainb

Seigarrena.- Onuradunek ondoko betebeharrak izango dituzte:

-Legorretako Udalak deitzen dituen bileretara parte hartzea; horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin, beharrezko bide eta bitartekoak ezarriko dira.

- Hizkeraren berdintasunezko erabilera bermatzea; emakumea diskriminatzen duten irudiak ekiditea eta berdintasunaren eta aniztasunaren irudia sustatzea.

- Dokumentala euskaraz egitea

- Dokumentala Legorretako Herri Antzokian 2021eko udazkenean edo neguan estreinatzea

- Dokumentala hedatzea eta zabaltzea, Legorretako Udalaren aldetik izan dituzten lankidetzaz eta finantzazioa aipatuz.

-Legorretako Udalak antolatutako edozein ekintzatan, diruz lagundutako proiektuari lotuta, lagundu beharko dute, Udalak hala eskatzen duenean.

Zazpigarrena.- Onuradunek hitzarmen hau aldatzea eskatu ahalko dute, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen. Halatan, eskatu ahalko dute ezarritako epeak luzatzea, onartutako zenbatekoa murriztea, edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea, eta eskatutakoa onartua izango da baldin eta aurreikusi ezin diren gorabeherak gertatu badira edo beharrezkoa bada jardueraren burutzapen egokirako, betiere diru laguntzaren xedea edo helburua ez bada aldatu eta ez badio hirugarren bati kalterik egiten.

Legorretako Udalak hitzarmen hau aldatu ahalko du onuradunei jakinarazi ondoren eta funtsak erabili aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek lortu nahi den interes publikoa eragotzi edo oztopatzen badute eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik egiten.

Onuradunek zuzitzeko agirian jakinarazten badute aldatu egin direla diru laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak, eta, aldaketa horiek direla eta, lehen adierazitakoaren arabera ebazpena aldatu egin zitekeela, baina aldaketa onartu aurreko baimen administratiboaren tramitea ez zela egin bere garaian, Legorretako Udalak aurkeztutako egiaztapena onartu ahal izango du, nahiz eta horrek ez dituen onuradunak salbuesten azaroaren 17ko Legearen 61.-63. artikuluen arabera dagozkion zigorretatik.

Zortzigarrena.- Onuradunek ez badute betetzen hitzarmen honetan eta gainontzeko araudi aplikagarrian ezarritako baldintzetakoren bat, laguntza hau jasotzeko eskubidea galduko dute erabat edo neurri batean, eta jasotakoa solidarioki itzuli beharko dute osorik edo neurri batean, legezkiokkeen berandutza interesekin batera, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 40. atalak xedatutakoari jarraituz, eta erantzukizunak eskatuko zaizkie, aipatutako 38/2003 Legeak xedatutakoaren arabera. Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, indarrean dagoen diru laguntzei buruzko araudiarekin bat etorriz.

Lanaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala justifikatutako beste arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten daiteke, bi aldeean artean adostua.

Espediente kodea: 2021IDIR0007
Titularra: Aitor Zunzunegi Tapia
Espediente mota: Dirulaguntza hainb

Bederatzigarrena.- Hitzarmen honek sinatzen den egunetik hasi eta 2021eko abenduaren 15era arte izango du eragina; eta edonola ere, hartutako konpromisoak erabat bete arte, hurrengo klausulan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Hamargarrena.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia pasatu delako edo hitzarmena hautsi delako iraungiko da. Alderdietako batek bere gain harturiko konpromisoak betetzen ez baditu, besteak ahalmena izango du zehatz-mehatz bete ditzan eskatzeko, edota hitzarmena amaitutzat eman dadin eskatzeko. Halaber, diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolana ere, diru laguntza huez gain beste erakunde publiko nahiz pribatuengandik besteren bat jasoz

gero, lankidetzaz hitzarmena aldatu edo iraungi daiteke. Deseginez gero, alderdiek amaieraren baldintzak eta gauzatze bidean dauden jardueren ordainketak zehaztuko dituzte.


Hamaikagarrena.- Hitzarmen hau izaera administratibokoa da.

Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan arazorik sortuz gero, administrazioarekiko auzibideko jurisdikzioak erabakiko ditu.

Hitzarmen honetan arautzen denaz gain, aplikatuko dira azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru laguntzen Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duena.

Eta ados daudela frogatzeko, hitzarmena digitalki sinatzen dute sinadura elektronikoak adierazitako datan.

LEGORRETAKO ALKATE UDALBURUA

Sinatzailea	Alkatea Zelai Amenabarro Goikoetxea
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/52/AAAAVXD4.Gvro

ONURADUNDAK

Arkaitz Mugerza Agirrezabala

Aitor Zunzunegi Tapia

Iñigo Iparragirre Urretabizkaia

Nire aurrean,

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/52/AAAAVXD4.Gvro>

KALE NAGUSIA, 12 – 20250 LEGORRETA (GIPUZKOA) TEL. (943)-08 40 00- FAX (943)-08 49 00- E-maila: udala@legorreta.eus

Espediente kodea: 2021IDIR0007
Titularra: Aitor Zunzunegi Tapia
Espediente mota: Dirulaguntza hainb

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/52/AAAAAVXD4.Gvro>

KALE NAGUSIA, 12 – 20250 LEGORRETA (GIPUZKOA) TEL. (943)-08 40 00- FAX (943)-08 49 00- E-maila:
udala@legorreta.eus